

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ADIERAZPENA

EiTBren Administrazio Kontseiluak, ETBren Nafarroako emisioak geldiarazteko agindua dela-eta deitutako ezohizko bileran

AZALTZEN DU

1. Jakinik zigor-espedienteak ireki direla EiTBren eta ITELAZPIren aurka, ETBk Nafarroan emisio digitalak geldiarazi ditzan, EiTBren Zuzendaritza Orokorrak Telekomunikazioen Estatuko Idazkaritzari eskatu zion, modu justifikatuan, kautelazko neurria bertan behera utz zezala. Ministerioak uko egin zion eskaerari, idatzizko erantzunean. Hortik hamabost egunera, maiatzaren 2º, astelehena, Inspektzioak idatzi bana bidali zien EiTBri eta ITELAZPIri, Ministerioaren Inspektzioko langileei sarbidea ahalbidetu ziezaien loarreko (50. kanala), San Kristobaleko (41. Kanala) eta Erreniegako (27. Kanala) errepikagailuetara, emisioak itzaltzeko eta tresneria eta instalazioak zigilatuzko.

2. Jakin duela EiTBko Zuzendaritza Orokorrak hartutako erabakia, emisioak bertan behera uztekoa, egon litezkeen ondorio eta ardurak handiak ekidite aldera, Ministerioako Inspektzioko funtzionarioek zigilatzearen eta erakundeek jaso lezaketan isun eta arduren balizko larritzearen ondorioz.

3. Ministerioaren jardunbide hori lehengo Nafarroako Gobernuaren salaketa baten ondorio dela.

4. EiTBk beti jardun izan duela herritarren eskariari erantzuteko printzipioa jarraituz, errespetu instituzionalaz eta alde interesatuen arteko beharrezko elkarrizketa mantenduz. Eta, ondorioz, EiTBk hauteman egiten duela egoera berriak hautsi egiten duela irratiko espazio elektrikoaren okupazio baketsuaren printzipioa, betiere hirugarrenak kaltetu gabe, 1986an Aralarreko santutegitik Nafarroan egindako lehen emisioetatik hona babestutakoa.

DECLARACIÓN DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN

El Consejo de Administración de EITB, en reunión extraordinaria convocada a tal efecto por el ordenamiento del cese de emisiones de ETB en Navarra

EXPONE

1. Que habiendo tenido conocimiento de la incoación de sendos expedientes sancionadores a EITB e ITELAZPI para cesar las emisiones digitales de ETB en Navarra, la Dirección General de EITB solicitó a la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones, de manera justificada, la suspensión de la medida cautelar, la cual fue denegada, en escrito de respuesta, por el Ministerio. Al cabo de quince días, el lunes, 2 de mayo, la Inspección remitió sendos escritos a EITB e ITELAZPI para que se facilitara al personal de Inspección del Ministerio acceder a los repetidores de loar (canal 50), San Cristóbal (canal 41) y El Perdón (canal 27) para proceder al apagado de las emisiones y precintar equipos o instalaciones.

2. Que ha tenido conocimiento de la decisión del cese de emisiones adoptada por la Dirección General de EITB para evitar efectos y responsabilidades mayores, derivadas de precintados por funcionarios de la Inspección del Ministerio y de un posible agravamiento de sanciones y responsabilidades sobre las sociedades.

3. Que esta actuación ministerial deriva de una denuncia del anterior Gobierno de Navarra.

4. Que EITB ha actuado siempre bajo el principio de atención a la demanda de la ciudadanía, con respeto institucional y manteniendo el necesario diálogo con las partes interesadas. Y que, en consecuencia, EITB aprecia que la nueva situación rompe el principio de ocupación pacífica del espacio radioeléctrico, siempre sin afección a terceros, preservado desde 1986, con las primeras emisiones en Navarra desde el santuario de Aralar, hasta la fecha.

Gertakizun horien aurrean, EiTbren Administrazio Kontseiluak publikoki adierazi nahi du bere gaitzespena, eta

Ante estos hechos, el Consejo de Administración de EITB desea manifestar públicamente su protesta ante lo acontecido, y

ADIERAZTEN DU

1. Euskararen geografia dela EiTbren emisioen espazio naturala eta Euskal Herria dela, bere osotasunean, hedabide honen komunikazio-eremu propioa. Ondorioz, EiTbk mantendu egin behar du bere emisio-hartze normala, horretarako indarrean dagoen legedia betez.
2. EiTbk, zerbitzu publiko gisa, aintzat hartu behar duela Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrek behin eta berriro egindako eskari handia, hala nola Nafarroako Foru Erkidegoko eta Iparraldeko herritarren funtsezko eskubidea, kalitatezko euskal ikus-entzunezko komunikabide bat izatekoa.
3. Europar zuzenbidean jasotako funtsezko printzipio demokratikoekin bat -Europar Kontseiluak horretarako sinatutako nazioarteko akordioen bidez babestutakoak-, Euskal Erakundeei dagokie bere herritarrek euskal errealitatearen informazioa jasotzeko duten funtsezko eskubidea babesteko betebeharra, eta babes berezia garatzea bizi diren edozein lekutan, hizkuntza gutxitu bateko komunitatea osatzen dutelako eta EITB delako dagoen entitate bakarra, bai eremu publikoan, bai pribatuan, funtsezko eskubide horiei erantzuteko beharrezko zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna duena eta prest dagoena.

DECLARA

1. Que la geografía del euskera es el espacio natural de las emisiones de EITB y que el conjunto de Euskal Herria es el espacio de comunicación propio a este medio por lo que EITB debe preservar su normal captación de emisiones, cumpliendo con la legalidad vigente a tal efecto.
2. Que EITB en su calidad de servicio público debe atender a la importante y reiterada demanda de los ciudadanos de la Comunidad Autónoma Vasca así como de los de la Comunidad Foral de Navarra y de Iparralde en su derecho fundamental a disponer de un vehículo de comunicación audiovisual vasco de calidad.
3. Que conforme a los principios democráticos esenciales recogidos en el derecho europeo y auspiciados por el Consejo de Europa, con acuerdos internacionales firmados a tal efecto, corresponde a las Instituciones Vascas preservar el derecho de los ciudadanos al derecho fundamental de información de la realidad vasca y a desarrollar una protección especial en cualquier lugar que residan, por constituir una comunidad con una lengua minorizada, y por ser EITB la única entidad existente, así en el ámbito público como en el privado, en disposición y con capacidad de ofrecer los servicios necesarios para la atención y desarrollo de los citados derechos fundamentales

4. Itzaltzeak moztu egiten duela funtsezko eskubidea, ETB libreki aukeratzekoa gertuko hedabide gisa, balio duena euskararen normalizatorako, euskal kulturaren dibulgatorako eta informatorako eta iritzirako eskubidea gertutasunetik eta zerbitzu publikoaren bitartez.
4. Que el apagado cercena el derecho fundamental a elegir libremente ETB como medio de comunicación próximo que sirve a la normalización del euskera, a la divulgación de la cultura vasca y a ejercer el derecho a la información y opinión desde la proximidad y el servicio público.

Horregatik guztiagatik,

EiTBren Administrazio Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die konpon dezatela eragindako kalte larria eta aintzat har dezatela Nafarroako audientziaren interes orokorra. Horretarako, emisioei berehala ekin diezaiela berriro, hasiera batean behin-behinekotasunez, Nafarroako Gobernuaren irrati-espektroaren bitartez eta, denborarik galdu gabe, dagokion lege-babesean ofizializatuz.

Por todo lo expuesto,

El Consejo de Administración de EITB insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de Navarra y al Gobierno de Madrid a solucionar el grave daño ocasionado y atender al interés general de la audiencia de Navarra retomando inmediatamente las emisiones, inicialmente de forma transitoria, a través del espectro radioeléctrico del Gobierno de Navarra y oficializándolas, sin pérdida de tiempo, con el correspondiente amparo legal.